

**68AREN OSTEAN.
DESPUÉS DEL 68.
AFTER '68.
1968-2018**

Euskal zinemaren atzera begirakoa
Erakusketarekin lotuta antolatutako zikloa

Joxean Fernández, Ion López (Filmoteca Vasca), Javier Aguirre, Pedro Olea, Ana Cadahía (Mercury Films), Ignacio Rotaecche, EGEDA (Jose Mari Zabala), Iñaki Núñez, Jon Bernat Heinink, Paco Hoyos, Josetxo Cerdán, Ana Barrado (Filmoteca Española), Jose Ángel Rebolledo, Javier Rebollo, Pedro de la Sota, Koldo Izaguirre, Xabier Iriondo, Juanma Bajo Ulloa, Imanol Uribe, Ernesto del Río, Álex de la Iglesia, Gracia Querejeta, Enrique Urbizu, Julio Medem, Aitor Arregi, Jose Mari Goenaga, Iñaki Gómez (IRUSOIN), Ainhoa Andraka (Doxa Producciones), Borja Cobeaga, Óscar García (Avalon), Jon Garaño, Miren Aperribay (Atera Films), Pablo Malo, Luís Santamaría (Barton Films), Asier Altuna, Marian Fernández (Txintxua Films), Daniel Calparsoro, Margarita Maroto (Hispano FoxFilm), Santos Zunzunegui.

Eskerrik asko

Euskal zinemaren asmakizuna

Gotzon Elorza, Félix Landáburu, Koldo Larrañaga eta Javier Sagastizábalentzat, benetakako aintzindariak, *in memoriam*.

Euskal zinema deritzonaren «asmakizunak» 1975. urtearen amaieran du jatorria, Bilbon, Eibarren eta Gasteizen underground zinemako jardunaldiak antolatu zirenean; gero, 1976ko otsailaren 24tik 27ra, Euskal Zinemaren Lehen Jardunaldiak eragin zituzten horiek, Bilboko Zine-klub Unibertsitarioak antolatuturik (Aresti Taldea). Hauek ziren helburuak:

- 1.- Euskal Herrian azken urteetan egindako zinemaren panorama bat erakutsi.
- 2.- Euskal Zinemaren gaur egungo egoera erakutsi, ia-ia existentziarik gabekoa, batetik, hura sustatu behar zuten klase sozialek arretarik gabe begiratu diotelako haren osagarri industrialari urte askoan, eta, bestetik, euskal herriaren premia kultural espezifikoenak etenik gabe ukatzearen ondorioz.

Horregatik premiazkoa da:

- 1.- Euskal herriaren interes berezien zerbitzurako zinema nazional-herrikoa sortzea ahalbidetuko duten oinarri batzuk ezartzeari buruzko gogoeta egitea (besteak beste, faktore giltzarria izango da euskararen defentsa eta sustapena).
- 2.- Esparru zinematografikotik alternatiba kultural demokratiko bat bultzatzea, euskal problematika nazionala eta haren xedeak potentziatuko dituen eta haren isla fidela izango dena.

Data horretatik aurrera, euskal zinemaren definizio bat ezartzeko eztabaidak eta topaketak antolatu ziren, kontserbadoreenetik (Euskal Herrian ekoiztako film oro) progresisteneraino (euskaraz eta klase-kontzientziaz, Ezeiza dixit).

Alberto López Echevarrietak, José María Unsainek eta, batez ere, Santos Zunzunegui idatzitako liburuek euskal zinemaren existentzia justiziaz exijitzeko oinarriak ezarri zituzten. 1975 urrun hartatik gaur egun arte, gaiari buruzko 30 monografiko baino gehiago argitaratu dira.

Euskal zinemaren aurrekari gisa aipa ditzakegu *Edurne, modistilla bilbaína* (Telesforo Gil del Espinar, 1924), *El mayorazgo de Basterreche* (Mauro Azcona, 1929), *La travesía molinera* (Harry d'Abaddie d'Arrast, 1934), *Sinfonía vasca* (Adolf Trotz, 1936), *Guernika* (Nemesio Sobrevilla, 1937), *Gure Sor Lekua* (André Madré, 1956), *Acteón amaitu gabea* (Jorge Oteiza, 1963) eta Pio Caro Barojaren film dokumentalak.

1970eko hamarkadaz geroztik, Zestoako Euskal Zinema Topaketak eta Lekeitioko Euskal Zine Bilerak euskarazko zinema amateurra sustatu zuten. Eta euskal zinemaren garapenerako funtsezkoak izan dira Euskadiko Filmategiaren sorrera, 1978an, eta Bilboko Arte Ederren Museoko Zinematikarena, 1983an; horiei honako hauek jarraitu zieten, besteak beste: Gasteizko Euskal Zinemaren Astea, 1984az geroztik egindakoa; Donostiako Nosferatu zikloak, 1989az geroztik antolatuak; eta Ikus-entzunezkoen Nafarroako Sorkuntza Jaialdia, 1993tik 2002ra egindakoa eta gaur egungo Iruñeko Ikuspuntua jaialdiaren ernamuina. Horrez gain, 1981ean Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza politika bat jarri zuen abian *Segoviako ihesa* filmarekin (Imanol Uribe) eta 1982an EiTb (Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca) sortu zen, zeinak gaur egun zinema proiektu askotan parte hartzen duen.

Azken urteotan, film laburren eta luzeen ekoiztetxe ugari sortu da, eta ekoizle independenteen hiru elkarte. Donostiako eta Bilboko zinema jaialdiek gero eta arreta handiagoa ematen diote zinema autoktonoari, sail berezien eta sarien bidez. Kimuak proiektuak Euskadin ekoiztutako film labur onenak aukeratzen ditu urtero. Eta zinema eskoletako zenbait ekimen pribatuk Donostiako Elías Querejeta Zinema Eskolaren sorrera eragin dute.

Ziklo honek, *Ama Lur* film fundatzaileztat hartutakotik hasita, hiru zinemagile belaunaldiren lana jasotzen du, haien ibilbide bakoitzeko film bana emanez (salbuespen bat edo besterekin), fikziozko filmak lehenetsita.

Jose Julián Bakedano, 2018

Egitaraua

11 01 19 17:30

13 01 19 19:30

Ama lur / Tierra madre, España, 1968

Z y G: Néstor Basterretxea, Fernando Larruquert; Pr: Frontera Films Irún, S.A.; F: Julio Amóstegui, Luis Cuadrado; M: Javier Bello, Juan Urteaga, VV.AA.; Mn: Pedro del Rey; K, 103 min. DCP JBES

Euskal Herriaren birsorkuntza lirikoa alderdi guztiei begira: etnikoak, historikoak eta lurraldeari dagozkionak. Euskal zinema kontzeptuaren fundatzailetzat jo daitekeen film dokumentala da, diru-bilketa herrikoi baten bidez ekoizitakoa. Herrialdearen alderdi artistiko guztiak ere jasotzen ditu..

11 01 19 19:30

13 01 19 17:30

Javier Aguirrereren **Anticine** film laburren bilketa

UTS cero, España, 1970

Z y G: Javier Aguirre; E: Actual Films; F: Juan García; M: Luis de Pablo; Z/B, 10 min, 35mm/Blu-Ray JBES

Fluctuaciones entrópicas, España, 1970

Z: Javier Aguirre; G: Javier Aguirre, con extractos de George Gamow; Pr: Actual Films; M: Julián Llinas-Mascaró, Eduardo Polonio, José Luis Téllez, Ángel Luis Ramírez y Horacio Vag-gione; Lokuzioa: Adolfo Marsillach; Z/B, 21 min, 35mm/Blu-Ray JBES

Espectro siete, España, 1970

Z: Javier Aguirre; G: Javier Aguirre, Ramón Barce, con extractos de Jean Charon; E: Actual Films; M: Ramón Barce; Lokuzioa: Adolfo Marsillach; K, 9 min, 35mm/Blu-Ray JBES

Innerzeitigkeit (Temporalidad interna), España, 1970

Z: Javier Aguirre; G: Javier Aguirre, Merleau-Ponty, Henri Franck, Georg Luckas, Peter Weiss, Simone Weil, Montale, Williamson, Herodoto, Charcot, San Pablo, Einstein, Pascal, Mauricio Kagel, Oscar Wilde, Carlos Edmundo de Ory eta Plotinoren aterakinekin; E: Actual Films; M: Tomás Marco; Lokuzioa: Adolfo Marsillach; Z/B, 14 min, 35mm/Blu-Ray JBES

Objetivo 40°, España, 1970

Z y G: Javier Aguirre; E: Actual Films; F: Raúl P. Cubero; Z/B, 11 min, 35mm/Blu-Ray JBES

Impulsos ópticos en progresión geométrica, España, 1970

Z: Javier Aguirre; G: Javier Aguirre, Teilhard de Chardinen aterakinarekin; E: Actual Films; M: Eduardo Polonio; Lokuzioa: de Adolfo Marsillach; K, 9 min, 35mm/Blu-Ray JBES

Che, che, che, Francia, 1971

Z: Javier Aguirre; G: Javier Aguirre, con textos de Henri Chopin, Sten Hanson, José Agustín Goytisolo y Peter Weiss; E: Actual Films, Cinematión; M: Eduardo Polonio, Patxi Andión; Lokuzioa: Adolfo Marsillach; Z/B, 25 min, 35mm/Blu-Ray JBES

Múltiples, número indeterminado, España, 1970

Z y G: Javier Aguirre; E: Actual Films; Irudia: Zeluloidaran pasea ekoiztutakoa; Soinua: Jesús Ocaña, aretoan ekoiztutakoa; Z/B, 12 metro amaierarik gabe, 35mm/Blu-Ray JBES

20 01 19 17:30

20 01 19 19:30

La casa sin fronteras, España, 1972

Z: Pedro Olea; G: Pedro Olea y Juan Antonio Porto, José Agustín *Lluvia* eleberri; E: Amboto P.C.; F: Luis Cuadrado; M: Carmelo Bernaola; Mn: José Antonio Rojo; A: Geraldine Chaplin, Tony Isbert, Viveca Lindfors, José Orjas, Patty Sefhard, Julio Peña, Luis Ciges, María Arias, Eusebio Poncela; K, 92 min. DCP JBES

Bilbon eta Euskal Herrian girotutako beldurrezko istorio kafkiarra. Gazte inozo bat hiriburura iritsi, eta La casa sin fronteras (Mugarik gabeko etxea) deritzon elkarte sekretu batean sartzen dute. Erakundeari aurre eginarazten dion espioitza sare baten mende geratuko da.

25 01 19 17:30

27 01 19 19:30

El espíritu de la colmena, España, 1973

Z: Víctor Erice; G: Víctor Erice, Ángel Fernández-Santos; E: Elías Querejeta P.C., CB Films; F: Luis Cuadrado; M: Luis de Pablo; Mn: Pablo G. Del Amo; A: Ana Torrent, Fernando Fernández Gómez, Isabel Telleria, Laly Soldevilla, Teresa Gimpera, José Villasante; K, 94 min. 35mm JBES

Víctor Ericeren lehen film luzea; Urrezko Maskorra irabazi zuen Donostian. Gerraosteko istorio bat; pertsona heldu batzuen frustrazioak eta, hari buruzko filma zinema ibiltari batean ikusi ondoren, Frankensteinen munstroarekin amets egiten duten bi neska koskorren istorioa kontatzen ditu.

25 01 19 19:30

27 01 19 17:30

Ikuska 3, España, 1979

Z, G: Antton Merikaetxebarria; E: Anton Eceiza, Luis Iriondo, Bertan Filmeak; F: Javier Aguirre-sarobe; M: Antón Larrauri; Mn: Alberto Magán, Julio Peña; K, 11 min. 35mm JBEU

Bilbo hiriarren panorama bat, oso bere garaian kokatua eta auzoen problematikaren presentzia berezia duena.

Axut, España, 1976

Z, G, F, M y Mn: José María Zabala; E: Frontera Films Irún, S.A.; A: Grupo La Comparsa, Koldo Gárate, León Poplawsky, María Ziegler, Pedro Campillo, Elena Irureta, Maite Dorronsoro, Amaia Zabala, Fermín Izaguirre, Carlos Zabala, Iñigo Altolaguirre, José Luis Zumeta, Miguel Ángel Oscoz, Fernando Díaz Peral; K, 88 min. DCP JBEU

Tradizionala eta modernoa nahasten dituen ikonografia batetik (fraideak, sorginak, exekutiboak, artzainak, karlistak, lapurrak, soldaduak, ipotxak...) eta musikak eta soinuek osatutako soinu-banda batetik abiatuta, Zabalak zirkulu metafisiko bat osatu zuen, zeinak modu poetikoan eta umorez egiten dien erreferentzia euskal errealitatearen zenbait alderdiri. (FilMOTECA Vasca)

01 02 19 17:30

03 02 19 19:45

Estado de excepción, España, 1976

Z, G, E, F y Mn: Iñaki Nuñez; M: Mikel Laboa; A: Zuriñe Saez de Jauregui, Enrique Gauna; Z/B, 16 min. DCP JBES

Filmak Gernikako bonbardaketan aita galdu duen familia baten istorioa kontatzen du. Semea erregimen frankistaren giro zapaltzaileak markatuta hazi da, eta, azkenean, tiraniaren aurka borrokatzeko armak hartzea erabakiko du, konbentzituta baitago «herria askatzeko modu bakarra armak erabiltzea» dela. Oberhausen Jaialdiko 2. saria 1977an.

Gerla eta maitasun gertakaria/Escena de amor y guerra, España, 1984

Z y G: Jon Bernat Heinink; E: Heiga Filmproduktzio taldea; F: Jordi Gómez Felip; A: Iñaki Lasa, Eguzki Zubia, Adolfo Fernández; K, 11 min. DCP/35mm/Blu-Ray/DVD JBEU

Kamera batek aurrera egiten du korridore batean, arrastaka, eta gela batera iristen da, zeinean gerrillari bat bere arma borrokarako prestatzen ari den, bikote batek larrua jotzen duen bitartean. Gerla eta maitasun gertakaria «kontsignen», «esloganen» eta eztabaidarik gabeko «esaeren» aurkako eta analisiaren eta gogoetaren aldeko jarrera pertsonal baten fruitu da; soluziorik gabeko hieroglifiko bat da, edo, beste era batera esanda, soluzio asko dituen hieroglifikoa da; baita literarioak ez diren tresna narratiboen bilaketa ere...

Euskal Herri-Musika, España, 1978

Z y Mn: Fernando Larruquert; G: Fernando Larruquert, José Ángel Rebolledo y Javier Aguirresarobe; E: Lankor taldea para Fundación Banco de Vizcaya; F: Javier Aguirresarobe; M: VV.AA.; Locutor: Joxan Artza; K, 65 min. DCP JBEUGA

Ibilbide zabala euskal musikan zehar, haren alderdi tradizioaletatik garaikideen-ataraino, espezialistei, interpreteei, musikagileei eta musikologoei egindako askotariko elkarrizketekin.

01 02 19 19:30

03 02 19 15:30

Arrebato, España, 1979

Z y G: Iván Zulueta; E: Nicolás Astiarraga P.C.; F: Ángel Luis Fernández; M: Negativo, Iván Zulueta; Mn: José Luis Peláez; A: Eusebio Poncela, Cecilia Roth, Will More, Marta Fernández-Muro, Helena Fernán-Gómez, Carmen Giral, Antonio Gasset, Max Madera, Luis Ciges, Rosa Crespo, Javier Ulacia; K, 110 min. DCP JBES

Iván Zulueta zuzendari donostiarren film luze bakarra da ia; zinema esperimendaleko eta abangoardiako zinemako pieza askoren egilea izan zen Zulueta. Zinema zuzendari baten tragedia kontatzen du, kamerak irensten baitu; errealitatearen eta zinemaren arteko harremanak ezartzen ditu, zinemaren barruan.

08|02|19 17:30

10|02|19 19:30

El pico, España, 1983

Z: Eloy de la Iglesia; G: Eloy de la Iglesia, Gonzalo Goicoechea; Pr: Ópalo Films; F: Hans Burmann; M: Luis Iriondo; Mn: José Salcedo; A: José Luis Manzano, Javier García, Enrique San Francisco, José Manuel Cervino, Lali Espinet, Luis Iriondo, Ovidi Montllor; K, 104 min. DCP JBES

Bilbo, 80ko hamarkada. Guardia Zibileko komandante batek jakin du haren 17 urteko semea, Paco, Akademia Militarrean sartuko dela espero duena, heroinomanoa dela. Urko ere, Pacoren lagunik onena eta buruzagi abertzale baten semea, heroinomanoa da. (FilmAffinity)

08|02|19 19:30

10|02|19 17:30

Tasio, España, 1984

Z: Montxo Armendáriz; G: Montxo Armendáriz, Marisa Ibarra; E: Elías Querejeta P.C.; F: José Luis Alcaine; M: Ángel Illarramendi; Mn: Pablo G. Del Amo; A: Patxi Bisquert, Amaia Lasa, Isidro José Lozano, Nacho Martínez, José María Asín; K, 95 min. DCP JBES

Montxo Armendarizen lehen film luzea da, bere Carboneros de Navarra film laburrean oinarritua. Ikazkin baten hazkunde fisiko eta psikologikoaren kontaketa da (hautzaroa, nerabezaroa, gaztaroa eta helduaroa). Sakontasun poetiko handikoa, ofizioaren gogortasunaren berri ematen du, bere gatazkekin, eta amodiozko istorio ederra kontatuz.

17|02|19 17:30

17|02|19 19:30

Fuego eterno, España, 1985

Z y G: José Ángel Rebollo, Ipar Euskal Herriko herriko abesti batetik aurrera; E: Aiete Films, S.A., Azkubia Films; F: Javier Aguirresarobe; M: Alberto Iglesias; Mn: Maria Elena Sáinz de Rozas; A: Ángela Molina, Imanol Arias, François-Eric Gendron, Ovidi Montllor, Klara Badiola, Ramón Barea, Manuel de Blas, Myriam De Maeztu, Juana Ginzo, Elena Irureta, Amaia Lasa, Margarita Lascoiti, Concha Leza, Joan Llaneras, Julio Maruri; K, 95 min. 35mm JBES

1660an, Baionako Gotzainaren aginduz, kalonje gazte bat sorginkeriagatik epaiketa inquisitorial baterako bidea eman zuten hogeitaz urte lehenagoko gertakari batzuk ikertzen hasi da. Komentu bakarti batera joan, eta han Gabrielle de Loithegi ezagutzen du, Azkubiako azken andrea; biziarteko espetxeratutako kondanata bizi da han. Komentuan prozesuko agiriak eskuratzen ditu. Hogeita zazpi urte lehenago, Gabrielle Pierre de Irigarai Azkubia jaunarekin ezkondu zen. Baina ezkontzaren egun berean, Pierre hil egin zen, modu arraroan; harrezkero Gabriellek zazpi urte eman zituen etxean itxita, senarraren gorpua bertan zuela. (FilmAffinity)

22 02 19 17:30

24 02 19 19:30

Golfo de Vizcaya, España, 1985

Z: Javier Rebollo; G: Santiago González, Joaquim Jordà, Juan Ortuoste y Javier Rebollo; E: Lan-Zinema; F: Javier Aguirresarobe; M: Ángel Muñoz Alonso; Mn: José María Biurrún; A: Omero Antonutti, Silvia Munt, Mikel Albisu, Ramón Barea, Patxi Bisquert, Juan Diego, Lander Iglesias, Luis Iturri; K, 90 min. 35mm JBES

Hamabost urtez Frantzian bizi ondoren, Lucas, iragan iluneko kazetari bat, Bilbora itzuli da, jaio zen hirira. Amodiozko istorio indartsua biziko du neska gazte batekin, baina gertakari batzuek ezinezko egingo dute bikotearen intimitatea. (FilmAffinity)

22 02 19 19:30

24 02 19 17:30

Ikuska 9, España, 1980

Z y G: José Julián Bakedano; E: Bertan Filmeak, S.L.; F: Javier Aguirresarobe; M: Iñaki González Bilbao; Mn: Eduardo Biurrun; A: Eduardo Chillida, Remigio Mendiburu, Vicente Larrea, Agustín Ibarrola, Rafael Ruiz Balerdi, Juan Luis Zumeta; K, 10 min. DCP JBEUGA

Ibilbidea garaiko euskal artean zehar.

Chillida, retrato en casa, España, 1983

Z, G y E: José Julián Bakedano y Pedro de la Sota; F: Javier Aguirresarobe, Aurelio Garrote; M: Joseba Aizpurua; Mn: José Luis Berlanga; A: Eduardo Chillida, Rafael Ruiz Balerdi; K, 23 min. 35mm VO

Eduardo Chillida eta haren adiskide Rafael Ruiz Balerdi margolariaren arteko solasaldia, sormen artistikoaren arazoei erreparatuz.

Oraingo izen gabe, España, 1986

Z y E: José Julián Bakedano; G: Bernardo Atxaga; F: Gabriel Beristain; M: Antton Valverde, Peer Raben; Mn: José Luis Berlanga; A: Iro Landaluze, Félix Arkarazo, Elena Lizarralde, Eguzki, Luis Iriondo, Eskarne Aroma; K, 44 min. 35mm JBEUGA

Bi anaia bakartuta bizi dira herrixka batean, harmonia perfektuan, harik eta haien bizitzan prostituta bat agertu eta bien artean gatazka sortzen den arte.

01 03 19 17:30

03 03 19 19:30

Viento de cólera, España, 1988

Z y G: Pedro de la Sota; E: Bizkaia P.C., ETB; F: Julio Madurga; M: Juan Pablo Muñoz Zielinski; Mn: José María Biurrún; A: Juan Echanove, Pedro Mari Sánchez, Emma Penella, Nelson Villagra, Aitana Sánchez-Gijón; K, 98 min. 35mm JBES

Bi emakumek lagunduta, bi soldadu zaldiz agertu dira Baztango haranean. Indietako armadako desertoreak dira; Italia aldera doaz ihesi. Haietako baten, León de Balanzaren, herentzia eskatzera datoz. Balanzategi zaharraren bila dabilta, zeinak beren arbasoen lurak lantzen dituen. Zaharrak baserriko lurak banatzeari emandako ezezkoak gatazka larria sortuko du. (FilmAffinity)

01 03 19 19:30

03 03 15 17:30

Ander eta Yul, España, 1989

Z: Ana Díez; G: Ángel Fernández Santos, Ángel Amigo, Ana Díez; E: ETB/TVE; F: Gonzalo F. Berridi; M: Pascal Gaigne, Amaia Zubiria; Mn: Iván Aledo; A: Miguel Muñárriz, Isidoro Fernández, Carmen Pardo, Joseba Apaolaza, Ramón Barea, Ramón Aguirre, Aizpea Goenaga, Paco Sagarzazu; K, 90 min. 35mm JBEU/JBEUGA

Ander gurasoen etxera itzuli da, droga trafikoa dela-eta, hainbat urte kartzelan igaro ondoren. Etxera iritsi denean, konturatu da ez dagoela familiarik. Dena aldatu da berarentzat, are oroimenean zituen paisaiak ere. Yul ikusiko du berriz, apaizgaitegiko aspaldiko ikaskide bat, eta bien arteko liskar politikoa piztuko da

08 03 19 17:30

10 03 19 19:45

Ke arteko egunak/Días de humo, España, 1989

Z: Antxon Ezeiza; G: Antxon Ezeiza, Koldo Izaguirre; E: Bertan Filmeak, S.A., Trenbideko Filmeak; F: Alfredo Mayo; M: Michel Portal; Mn: José Salcedo; A: Pedro Armendáriz Jr., Iro Landaluze, Elene Lizarralde, Teresa Calo, Xabier Elorriaga, Elena Irureta, Patxi Bisquert; K, 105/110 min. 35mm JBEU/JBEUGA

Egun batean, Pedro Sansineneak familia, lagunak eta herrialdea utzi zituen, ito egiten zuen girotik ihesi. Hogei urte geroago Euskal Herrira itzuli da, hainbat arrazoi tarteko, eta gorroto zaharrekin eta arazo berrieekin egin du topo, baita amodiozko istorio batekin ere. Antxon Ezeizaren zazpigarren film luzea da, «Ikuska» saila ekoitzi eta gero. (FilmAffinity)

08 03 19 19:45

10 03 19 17:30

La madre muerta, España, 1993

Z: Juanma Bajo Ulloa; G: Juanma Bajo Ulloa, Eduardo Bajo Ulloa; E: Gasteizko Zinema, Sogepaq; F: Javier Aguirresarobe; M: Bingen Mendizábal; Mn: Pablo Blanco; A: Karra Elejalde, Ana Álvarez, Silvia Marsó, Elena Irureta, Ramón Barea, Gregoria Mangas, Marisol Sáez, Raquel Santamaría; K, 107 min. 35mm JBES

Ismaelek (Karra Elejalde) hainbat hilketa egilea da, baina haietako bakar batek obsesionatzen du oraindik ere, izan zituen ondorioak direla-eta. Biktimitako baten alabak (Ana Álvarez), krimenaren lekuko izan neska koskorrak, arrazoimena galdu zuen, hilketak eragindako zirraren ondorioz. Hogei urte geroago, Ismaelek hura bahituko du, argitu egin nahi baitu ea neskak ba ote dakien ama berak hil ziola. (FilmAffinity)

15 03 19 17:30

17 03 19 19:30

Días contados, España, 1994

Z: Imanol Uribe; G: Imanol Uribe, Juan Madriden eleberritik aurrera; E: Ariane Films, Aiete Films, Sogepaq; F: Javier Aguirresarobe; M: José Nieto; Mn: Teresa Font; A: Carmelo Gómez, Ruth Gabriel, Candela Peña, Karra Elejalde, Javier Bardem, Elvira Mínguez, Pepón Nieto, Joseba Apaolaza; K, 93 min. DCP/35mm/Blu-Ray/DVD JBES

Egin behar duen atentatu baten bezperan, Antonio ETA talde terroristako kideak Charo ezagutu du, hemezortzi urteko drogazale bat, giro likitsean hazia izan arren inozoa izaten jarraitzen duena. Dagoeneko sinesten ez duen kausa baten alde eman du bizitza Antoniok, eta haren ezinegona handitu egiten da suntsipena eta heriotza baino ez daukan kale itsu batean harrapatuta sentitzen denean. (FilmAffinity)

15 03 19 19:30

17 03 19 17:30

Hotel y domicilio, España, 1995

Z: Ernesto del Río; G: Luis Eguiraun, Santiago González, Ernesto del Río; E: Lan Zinema, Sen-deja Films; F: Gonzalo F. Berridi; M: Bingen Mendizabal; Mn: Juan Ortuoste; A: Jorge Sanz, Santiago Ramos, Enrique San Francisco, Anabel Alonso, Ramón Barea, Joseba Apaolaza, José Manel Cervino, Saturnino García; K, 99 min. 35mm JBES

Ángel mediku forentsea da lanbidez. Bikotekideak utzi egin du, eta adiskide eta auzokide duen psikiatra batek lagundu egiten dio: kirola egitera bultzatzen du eta kontaktu agentzia batera bideratzen du. Horrela, Ángelek Bruno ezagutuko du, hogeitau urte baino zaharxeagoa den txaperoa, zeina lana ematen dion agentziari lotuta bizi den, eta Mavi ere ezagutuko du, Brunorekin lankidetzako harremana duen prostituta bat. Brunoren iraganean Guillermo ageri da, polizia-zigor batek banatu zituen arte haren babesle-esplotatzaile izan zen polizia ohia. (FilmAffinity)

22 03 19 17:30

24 03 19 19:30

El día de la bestia, España, 1995

Z: Álex de la Iglesia; G: Álex de la Iglesia, Jorge Guerricaechevarría; E: Iberoamericana, Sogetel, Canal+ España; F: Flavio Martínez Labiano; M: Battista Lena; Mn: Teresa Font; A: Álex Angulo, Santiago Segura, Armando de Razza, María Grazia Cucinotta, Terele Pávez, Saturnino García, Nathalie Seseña, Jimmy Barnatán, Jaime Blanch, Antonio Dechent, Manuel Tallafé, Antonio de la Torre; K, 103 min. 35mm/Blu-Ray JBES

Apaiatzate San Joanen araberako Apokalipsiaren mezu sekretua argitu duela uste du: Antikristoa 1995eko abenduaren 25ean jaioko da Madrilén. Satanasen semearen jaiotza eragozteko, apaizak bat egingo du José Mariarekin, death metal musika gustatzen zaion gaztearekin. Biak gertaera apokaliptikoa Madrilgo zein lekutan gertatuko den argitzen ahaleginduko dira. (FilmAffinity)

22 03 19 19:30

24 03 19 17:30

El último viaje de Robert Rylands, España/Reino Unido, 1996

Z: Gracia Querejeta; G: Elías Querejeta, Gracia Querejeta, Javier Maríasen «Todas las almas» eleberritik aurrera; E: Alta Films, Buxton Films, Elías Querejeta P.C.; F: Antonio Pueche; M: Ángel Illarramendi; Mn: Nacho Ruiz Capillas; A: Ben Cross, William Franklin, Cathy Underwood, Kenneth Colley, Perdita Weeks, Gary Piquer, Lalita Ahmed, Karl Collins, Maurice Denham; K, 98 min. 35mm JBENGA

Javier Maríasen Todas las almas nobelaren egokitzapen libre —eta polemikoa—. Oxforden dagoen irakasle espainiar baten istorioa kontatzen du; han oso ezaguna den gizon baten itzuleraren lekuko da. (FilmAffinity)

29 03 19 17:30

31 03 19 19:45

La caja 507, España, 2002

Z: Enrique Urbizu; G: Enrique Urbizu, Michel Gaztambide; E: Sogecine; F: Carles Gusi; M: Mario de Benito; Mn: Ángel Hernández Zoido; A: Antonio Resines, José Coronado, Goya Toledo, Juan Fernández, Luciano Federico, Dafne Fernández, Miriam Montilla, Sancho Gracia, Héctor Colomé, Enrique Martínez; v, 104 min. 35mm/DVD JBES

Modesto gizon ondradu eta langilea da, Costa del Soleko banku-sukurtsal baten zuzendaria. Egun batean, lapur batzuk sartzen dira bankuan, segurtasun kutzak irekitzen dituzte eta Modesto barruan uzten dute. Kasualitatez, 507 kutzaren edukiri erreparatzean, jabetzen da bere alabaren heriotza, urte batzuk lehenago gertatua, ez zela istripu baten ondorio izan. (FilmAffinity)

29 03 19 19:45

31 03 19 17:30

La pelota vasca, la piel contra la piedra, España, 2003

Z, G y Mn: Julio Medem; E: Alicia Produce; F: Javier Aguirre, Jon Elicegui, Ricardo de Gracia; M: Mikel Laboa eta besteak; A: Xabier Arzalluz, Bernardo Atxaga, Txiki Benegas, Txetxo Bengoetxea, Julen de Madariaga, Odón Elorza, Iñaki Gabilondo, Carlos Garaikoetxea, Anika Gil, Felipe González, Carmelo Gómez, Juan José Ibarretxe, Fermín Muguruza, Gemma Nierga, Arnaldo Otegi, Gregorio Peces Barba, Alec Reid, Ana Torrent, José María Aznar, José Luis Rodríguez Zapatero; K, 115 min. 35mm JBES

Euskal Herriari buruzko film dokumentala, herritarrei egindako elkarrizketak, artxiboko materiala eta soinu-banda bikain bat oinarri hartuta egindakoa. (FilmAffinity)

05|04|19 17:30

07|04|19 19:30

Lucio, España, 2007

Z y G: Aitor Arregi, José Mari Goenaga; E: Irusoin, Moriarti Produkzioak; F: Javier Aguirre; M: Pascal Gaigne; Mn: Raúl López; A: Ramón Agirre, Roland Dumas, Antonio Martín; K, 93 min. 35mm JBES

Lucio Urtubia nafarrak anarkismoari eskaini dio bitizta osoa. Che Guevararekin egin du lan, 3.000 milioi pezetako iruzurra egin dio Citibanki, bahiketa entzutetsuetan hartu du parte... eta hori gutzia igeltsero lanetik egun bakar batean ere huts egin gabe. (Moriarti Pr.)

05|04|19 19:30

07|04|19 17:30

Asier eta biok, España/Ecuador, 2013

Z y G: Aitor Merino, Amaia Merino; E: Doxa Producciones, Cineatica Films; F: Aitor Merino; Mn: Ainhoa Andraka, Amaia Merino; A: Asier Aranguren, Juan Diego Botto, Pilar Castro, Aitor Merino, Diego París, Ana Rayo, Guillermo Toledo, Velilla Valbuena; K, 94 min. DCP JBEU/JBEUGA

Asier eta Aitor Merino aktore eta zuzendaria elkarrekin hazi ziren Iruñean. Elkarrekin joan ziren ikastolara eta lagun handiak egin ziren. Urte batzuk geroago, Aitor Madrilerara joan zen bizitzera, aktore izan nahian. 2002an, Asier ETA talde terroristan sartu zenean, Aitorrek bere buruari galdetzen zion nola ulertarazi diezaikeen Madrilgo bere lagunei berak ere ulertu ezin zuena. Asier espetxetik irten orduko, lagunak bere erabakiaren zergatia azaltzeko aukera izango zuen film bat egiteko asmoa izan zuen Aitorrek. (FilmAffinity)

12|04|19 17:30

14|04|19 19:30

Negociador, España, 2014

Z y G: Borja Cobeaga; E: Sayaka P.C., Canal+ España; F: Jon D. Domínguez; M: Aránzazu Calleja; Mn: Carolina Martínez Urbina; A: Ramón Barea, Josean Bengoetxea, Carlos Areces, Melina Matthews, Jöns Pappila, María Cruickshank, Óscar Ladoire, Raúl Arévalo, Secun de la Rosa, Alejandro Tejería, Santi Ugalde, Gorka Aguinagalde, Nagore Aranburu; K, 80 min. DCP JBES

Manu Aranguren, euskal politikari bat, Espainiako Gobernuaren mintzaidea da ETArekiko negoziazioetan. Ekitaldi solemne eta kalkulatu batera joan beharrean, uste zuen bezala, berehala jabetuko da kasualitateek, hutsegiteek eta gaizki-ulertuek markatzen dutela bi aldeen arteko solasaldia eta negoziatzaileen arteko harreman pertsonala giltzarri izango dela gatazka konpontzeko. PSEko presidente Jesus Eigurenen eta ETAre artean 2005ean eta 2006an izandako negoziazioetan oinarritutako komedia. (FilmAffinity)

12|04|19 19:30

14|04|19 17:30

Loreak, España, 2014

Z: Jon Garaño, José Mari Goenaga; G: Jon Garaño, José Mari Goenaga, Aitor Arregi; E: Iru-soin, Moriarti Produktzioak; F: Javier Aguirre; M: Pascal Gaigne; Mn: Raúl López; A: Nagore Aranburu, Itziar Aizpuru, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Ane Gabaraín, Egoitz Lasa, Jox Berasategui, Gotzon Sánchez, José Ramón Soroz; K, 99 min. DCP JBEUGA

Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero, etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean. Beti ordu berean. Beti modu anonimoan. Lore misterioitsu batzuek aldatu egingo dituzte Lourdesen eta Tereren bizimoduak ere. Ezezagun batek lore-sorta bat utziko du astero, eurentzat hain garrantzitsua izandako norbaiten oroimenean. Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta xume batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu. Lore horiek ahaztutaz zituzten sentimenduak azaleratuko dizkiete... Baina, azken batean, loreak baino ez dira. (Moriarti Pr.)

18|04|19 17:30

19|04|19 19:30

Lasa y Zabala, España, 2014

Z: Pablo Malo; G: Joanes Urkixo; E: Abra Producciones, Parsimonia; F: Aitor Mantxola; M: Pascal Gaigne; Mn: Raúl López; A: Unax Ugalde, Francesc Orella, Oriol Vila, Jon Anza, Cristian Merchan, Ricard Sales, Javier Mora, Iñaki Ardanaz, Pep Tosar, Aitor Mazo, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Iñigo Gastesi, Iñaki Rikarte, Pedro Morales, Patricia López, Carlos Olla, Sergi Calleja, Román Reyes; K, 107 min. DCP JBEUGA

1983ko urrian, Baionan, Lasa eta Zabala ETako kideak desagertu ziren. Hamabi urte geroago, haien gorpuak identifikatu dituzte, GALEk (Grupos Antiterroristas de Liberación) torturatua eta kare bizitan lurperatua. Orduan hasten den prozesuan, bi familien abokatuak (Unax Ugalde) eta haren laguntzaileak ahaleginak egingo dituzte justizia egin dadin eta hiltzaileak akusatuen aulkian eser daitezen (FilmAffinity)

18|04|19 19:45

19|04|19 17:30

Amama, España, 2015

Z: Asier Altuna; G: Asier Altuna, Telmo Esnal; E: Txintxua Films; F: Javier Aguirre; M: Javi P3z, Mursego; Mn: Laurent Dufreche; A: Iraia Elias, Kandido Uranga, Klara Badiola, Ander Lipus, Manu Uranga, Amparo Badiola, Nagore Aranburu; K, 103 min. DCP JBEUGA

Familia-istorio bat. Gurasoen eta seme-alaben arteko gatazka, baserriaren eta kalearen artekoa, iraganaren eta orainaldiaren artekoa. Tomas eta Amaia, aita eta alaba; bitzta ulertzeko bi modu, guztiz kontrakoak, eta munduari isiltasunik adierazgarrietik begiratzen dion amama bat. (Txintxua Films)

21 04 19 17:30

21 04 19 19:30

Cien años de perdón, España/Argentina/Francia, 2015

Z: Daniel Calparsoro; **G:** Jorge Guerricaechevarría; **E:** Morena Films, Vaca Films, Telecincin Cinema, Kramer, Sigman Films, Telefonica Studios, Fox Intl. Prod.; **F:** Josu Inchaustegui; **M:** Julio de la Rosa; **Mn:** Antonio Frutos; **A:** Rodrigo De la Serna, Luis Tosar, Raúl Arévalo, Patricia Vico, José Coronado, Joaquín Furriel, Marian Álvarez, Luciano Cáceres, Luis Callejo, Joaquín Climent; **K, 97 min. DCP**

Goiz euritsu batez, mozorrotuta eta armaz hornituta, sei gizonek Valentziako banku baten egoitza nagusiarri erasotzen diote. Lapurreta garbi eta erraza zirudiena konplikatu egiten da, eta ezer ez da aterako pentsatuta zegoen bezala. Horrek mesfidantza eta gatazka sortuko du bandako bi liderren artean: «El Uruguayo» eta «El Gallego». Baina zeren bila dabilta zehazki lapurrak? (FilmAffinity)

26 04 19 17:30

28 04 19 19:30

Handia, España, 2017

Z: Jon Garaño, Aitor Arregi; **G:** Jon Garaño, Aitor Arregi, José Mari Goenaga, Andoni de Carlos; **E:** Irusoin, Kowalski Films, Moriarti Produksioak; **F:** Javier Aguirre; **M:** Pascal Gaigne; **Mn:** Raúl López, Laurent Dufreche; **A:** Joseba Usabiaga, Eneko Sagardoy, Ramón Agirre, Iñigo Aranburu, Aia Kruse, Iñigo Azpitarte; **K, 114 min. DCP JBEUGA**

Lehen karlistaldian borrokatu ostean, Martin Gipuzkoako bere etxera itzuli da, eta han, harrituta, Joakin anaia gaztea ohikoa baino askoz ere handiagoa dela ikusiko du. Mundu osoak Lurreko gizon handiena ikusteko ordaindu nahi izango duelakoan, bi anaiek bidaia luze bati ekingo diote, Europan zehar. Bidean, anbizioak, diruak eta ospeak betiko aldatuko dute familiaren patua. Benetako gertakarietan oinarritutako istorio bat. (Moriarti Pr.)

26 04 19 19:45

28 04 19 17:30

Errementari, España, 2017

Z y Mn: Paul Urkijo Alijo; **G:** Asier Guerricaechevarría, Paul Urkijo Alijo; **E:** Gariza Produksioak, Ikusgarri Films, Kinoskopik S.L.; **F:** Gorka Gómez Andreu; **M:** Pascal Gaigne; **A:** Eneko Sagardoy, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Gorka Aguinagalde, Urko Olazabal, Kandido Uranga, Al-mudena Cid, Ramón Agirre; **K, 96 min. DCP JBEUGA**

10 urte pasatu dira 1833ko lehenengo karlistaldiaz geroztik. Arabako herrixka batean, gobernuko komisario bat, Alfredo, gertakari bat ikertzen ari da, eta aztarnekin basoaren sakonean dagoen errementaria beldurgarri batera daramate. Errementari arriskutsu eta bakarti bat bizi da han: Patxi. Inguruko herritarrek hari buruzko istorio ilunak kontatzen dituzte, lapurretei, hilketei eta demonioekin egindako tratuei buruzkoak. Egun batean, kasualitatez, Usue izeneko neska koskor umezurtz batek errementaria misteriozuan sartzea lortu eta agerian utziko du Patxi Errementariak ezkututzen duen egia izugarria.

Z: Zuzendaria
G: Gidoia
M: Musika
Mn: Muntaketa
E: Ekoizpena
A: Aktoreak
K: Koloretan
Z/B: Zuri-beltzean

JBEU: Jatorrizko bertsioa (euskaraz)

JBES: Jatorrizko bertsioa (gaztelaniaz)

JBEUGA: Jatorrizko bertsioa euskaraz, gaztelaniazko azpigituluekin

JBENGA: Jatorrizko bertsioa ingelesez, gaztelaniazko azpigituluekin

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

